



TOLOSAKO
UDALA

IRIZPENA

GAIA: EUSKARA IKASTEN ARI DIREN TOLOSARREI DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA

AURREKARIAK

Aurkeztu den aldaketaren helburu nagusia, Tolosako herritarrak euskara ikastera bultzatzea da. Horretarako, indarrean dagoen ordenantza aldatu beharra dago, diru-laguntzak Aitzol Udala Euskaltegitik kanpo ikasten dutenentzako bakarrik bideratuak daudelako.

Horretaz gain, indarrean dagoen ordenantzak hobariak aurreikusten ditu Aitzol Udala Euskaltegian ikasten duten ikasleentzat eta legediak egoera hori aldatzeko eskatzen du.

Beraz, Tolosako Udalak, zehazki honako helburuak lortu nahi ditu ordenantzak aldatuz:

- Aitzol Udala Euskaltegitik kanpo ikasten duten tolosarrek diru-laguntza jasotzen euskara ikasteagatik.
- Aitzol Udala Euskaltegian ikasten duten tolosarrek ere diru-laguntza jasotzea.

Hau dena kontutan harturik, proposaturiko Ordenantzak diru-laguntza bat xedatzen du euskara ikasten duten tolosarrentzat, euskal hizkuntza ikasteak sortarazten dituen gastuei aurre egiteko.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Udalaren eskumena

- Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, bere 25. artikuluko 2)m) apartatuan dioenez, Udalaren eskumena da Kulturaren Sustapena egitea. Era berean, apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedaturikoaren arabera, Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea ere Udalaren eskumena da.
- Diru-laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea) eta 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko arauketa.

2.- Ordenantzaren izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Ordenantza honen izapidetzeak ondoko pausoak izan ditu:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez zitezten.
- Ez denez alegaziorik aurkeztu, Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.



TOLOSAKO
UDALA

3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzen onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Beraz, teknikari honek ondoko ebazpen proposamena aurkezten du

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENA.- Tolosako udalerrian *Tolosako herritarrek euskara ikastera bultzatzeko diru-laguntzak* arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jarzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta daudela ulertuko da.

Irizpen hau Euskara eta Hezkuntzako Batzorde Informatiboan aztertu eta bozkatu zen 2018ko azaroaren 20ean egindako bilkuran, bozketaren emaitza ondoko hau izan zelarik:

ALDEKO BOTOAK

- **JOKIN AZKUE**
- **MAITE RUIZ DE EGILAZ**
- **INAKI IRAZABALBEITIA**
- **NURIA CARBONELL**

Tolosan, 2018ko azaroaren 20an
Euskara Zerbitzuko behin-behineko burua

Larraitz Murgiondo Artano